

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Marques de Rozalejo Jauregian gaur goizean egiaztatu du arriskuak daudela, larriagotu diren egiaztatzearekin batera

Teknikariek egindako txostenaren arabera, instalazio elektrikoak legez kontrako krokadura du fatxadan banaketa-konpainiaren kable bihurritura

Asteartea, 2019.eko urtarrilak 8

Nafarroako Gobernuak iritzi publikoari jakinarazi behar dio abenduaren amaiera aldera jakin zuela Marques de Rozalejoko Jauregia izeneko eraikineko auzokoen bitartez, eraikinaren barruan obra-zaratak entzuten zirela. Datu hori kezkarritzat jo zen, obrak medio bertan daudenak arriskuan jartzeko aukera baitzegoen eta higiezinan babestutako elementuetan eta/edo alboko eraikinetan kalteak eragin.

Hori dela-eta, urtarrilaren 2an, Iruñeko 4. Instrukzio Epaitegiari baimen judiziala eskatu zioten (bertan jarraitzen dute 2181/2017 Delitu Arinen gaineko epaiketa) eraikinean sartzeko Foruzaingoko agenteak nahiz Ondare Zerbitzuak izendatutako teknikariak, auzotarrek emandako informazioak egiazkoak ziren ala ez egiaztatzeko; hau da, barruan obramotaren bat egiten ari zirela, eta, hala behar izanez gero, egiten ari litezkeen obra horien irismena eta ondorioak zehazteko.

Aipatu Epaitegiak emandako Autoaren bitartez, Marques de Rozalejoren barrura sartzeko baimena eman zitzaion Ikerketa Kriminalerako Arloko eta Foruzaingoko Informazio Dibisioko agenteei, Ondare Zerbitzuak izendatutako teknikariek batera, eskatutakoa ikuskatzearen, eta arrisku horiek kentzeko edo subsidiarioki gutxiagotzeko beharrezko neurriak hartzeko asmoarekin. Halaber, Autoan esaten zen Nafarroako Gobernuak behar bezalako prebentzio pertsonalak eta materialak hartu behar zituela, betearazteko neurri horiek denboran zehar mantentzea bermatzearen.

Gaur goizean eraikinera sartu dira, eta bertan ez zegoen inor.

Teknikariek [txostena](#) egin dute, eta honi gehitu zaio kopia. Txostena dagoeneko aurkeztu dute 4. Instrukzio Epaitegian, eta Iruñeko Udaleko alkateari ere igorri diote.

Une honetan, teknikariak higiezinaren egoera aztertzeko ikuskapen zehatzagoa egiten ari dira, eta horren emaitzaren eta dagozkien jardueren berri emango dute.